



...eta **Kitto!**

**EIBARKO EMAITZAK
2009/III/1**



**EUSKO
LEGE BILTZARRERAKO
HAUTESKUNDEAK**

2009ko EUSKO LEGE BILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK EIBARREN



15.000 lagun (3tik bi) gerturatu ziren Eibarko bederatzai hauteslekuetara.

Aralarrek botoak bikoiztu ditu; EA, EB eta PP, berriz, nabarmen jaitsi dira

Jaurlaritzarako ere PSE-EEK aurrea hartu dio EAJ-ri

PSE-ek oin dala urte batzuk hartutako goranzko bideari eutsi dio eta ez dirudi zati baterako lagako dionik: orain dela 4 urteko hauteskundeetan baino 700 boto gehiago izan ditu eta %10 igo

da. Hauteskunde hauetan, gainera, lehenengo aldiz aurre hartu dio EAJ-ri, EAEkoak izan arren: orain arte, udal bozketetan eta Espainiako Parlamenturako hauteskundeetan nagusitu izan dira sozialistak. **EAJ** berriz ere bigarren geratu da. Orain dela 4 urteko hauteskundeetako datuekin ezin liteke konparaziorik egin, orduan EAekin zerrenda bateratua aurkeztu zelako. Nolanahi

ere, EAk lortutako botoak gehitu ezker, jaitsi egin dira jeltzaleak. **EAK** jaitsiera handia izan du Eibarren, EAEn bezala; EAJrekin ez joateko egin duten apustua garesti irten zaie. **Aralarrek** izan du Eibarren gorakadarik esanguratsuenak: 2005ko hauteskundeetatik hona botoak bikoiztu egin baititu. Itxura batean, aurkeztea debekatuta izan duten D3M-ren jarraitzaile ba-

tzuk botoa Aralarri ematea hobetsi dute. Debekeatutako **ezker abertzaleak** oztopoak gainditu eta eutsi egin dio eta, Eibarren eman dituzten 1.272 boto nulotatik, 1.234 eskuratu ditu. **PP**-ek, berriz, beheranzko bidean segitu du eta ia 800 boto galdu ditu. **Ezker Batuari** ere murriztu egin zaio boto kopurua eta EAEn hartutako beheranzko joeran sartu da Eibarren ere.

Udal hauteskundeak izanez gero... ZINEGOTZI KOPURUA

	ORAIN DITU	IZANGO LITUZKE
PSE-EE	11 →	9
EAJ-PNV	5 →	9
PP	1 →	2
Aralar	1 →	1
EA	2 →	0
EB-Berdeak	1 →	0

OHARRA:
Udal-hauteskundeetan EB-IU eta Aralar batera aurkeztu ziren

2005eko JAURLARITZAKO hauteskundeak

EAJ-EA	6.334
PSE-EE	4.410
PP	2.125
EHAk	1.952
EB-IU	899
Aralar	494

2007ko UDALERAKO hauteskundeak

PSE-EE	6.048
EAJ-PNV	2.791
PP	1.043
EA	1.162
EB-Aralar	1.334
Baliogabeak	1.752

2008ko KONGRESURAKO hauteskundeak

PSE-EE	6.780
EAJ-PNV	3.447
PP	2.002
EA	860
EB-IU	705
Aralar	608



EMAN CONSULTING, S.L.

● AHOLKULARITZA ETA CONSULTING

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa

● GIZA ERREKURTZOAK

- Enpresako komenio eta hitzarmenak

● PERTSONALAREN AUKERAKETA

● STAFF OROKORRA

- KRISIALDIAN DAUDEN ENPRESAK BERRIRO MARTXAN JARRI

● AUDITORIARIK

- KOMENIO ESTRAJUDIZIALAK

● ORDAIN-ETENALDIARIK

- ASEGURU PRIBATUARIK

● KALITATE ARAUARIK



MAILAK TRUST, S.L.

TRANSAKZIO INMOBILIARIOAK
KOMUNITATEEN GESTIOA

- ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA

- ALOKAIUARIK

- TRASPASOARIK

- BALORAZIOARIK

- PERITAJEARIK

- SUBENTZIOARIK

- KREDITU OFIZIALARIK

- BANKU KREDITUARIK

J. Etxeberria, 5 (EIBAR) Tel. 943 200 336 / 943 208 778 Faxa: 943 200 342

Marqués de Valdespina, 10 (ERMUA) Tel. 943 170 451 Faxa: 943 176 901

J. Etxeberria 5 (Tel. 943 200 336 / 943 200 069 - Faxa: 943 200 342) **EIBAR**

Marqués de Valdespina 10 (Tel. 943 170 054 - Faxa: 943 176 901) **ERMUA**

emansl@infonegocio.com

BOTOA EMOTERA KUAN

1.- Zelan ikusi dozu **KANPAINIA**?

2.- Zelan **EMAITZAK** espero ditzuzue?



ARCADIO BENITEZ (PSE-EE)

Udaletxera agertu zan Arcadio Benitez bertako atiak zabaldu bezain laster. Alderdixetako ordezkariak hauteskunde egunerako biharreko gestio guztiak antolatzen zeuzan.



1.- Ilusioz betetako kanpainia izan da. Eibarren be ahalegiñ haundia egin dogu ekitaldixak antolatzen, Felipe Gonzalezekin Astelenan egin genduan moduan.

2.- Aukera desbardiña planteau dogu eta jendiak ondo erantzungo dabelakuan gagoz. Lehendakaritza lortzia espero dogu oinguan.



MIREN SOJO (EAJ-PNV)

Berez botua San Andres eskolan emotia tokau arren, Urkizu eskolako mahai batian biharrian harrapau genduan Miren Sojo 10.30xak aldi.



1.- Ondo ikusi dot kanpainia, pentsatzen dot kandidato guztiak euren mensajia aditzera ondo emon dabela eta ulertu egin dala.

2.- Irabazia espero dogu, gu abertzaliak gara eta hori bihar dogu Gasteizko gobernuan, gauzak hamendik gestionatzeko, eta ez Madriletik.



CARMEN LARRANAGA (PP)

Coliseo antzokiko sarreran dugu mahaixetan botua emoten lehelenetakua izan zan Carmen Larrañaga, baiña 09.30xak izateko mugimendua ikusten zan.

1.- Beste elekziño batzuekin konparatzen hasi ezker, ondo ikusi dot kanpainia, garbixa, eta gure alderdixak ondo egin dabela pentsatzen dot.

2.- Guretako onak izatia espero dogu, hauteskunde batzuetatik bestietara aldia izaten da, baiña aurrekuari eutsiko detsagula uste dogu.



MIREN CRISTOBAL (EA)

Miren Cristobalek gerontologikuan bozkatu zeban 11ak aldera, atian bildu ziran eta greban jarraitzen zeban bertako bihariñen oiñu eta txistu artian.

1.- Alderdi bakotxak euren ideiak herrixari azaldu biharrian, paktuetan eta kalkuluetan denporia galtzen jardun dabe gehixenak.

2.- Gitxienez, Legebiltzarrian ditzugun aukixei eustia nahiko geunke, presentzia eukitzeko ez eze, berbia be eukitzeko.



ELI GOMEZ LACONCHA (EB-IU)

Eguardixan aillegau zan Eli Gomez EPARA, jendia sartu-urtenian zebilela. Goizeko lanbrua juanda zeguan eta horrek animau zeban jendia etxetik urtetzera.

1.- Kanpainia polarizau dabez PSOE-PNV artian eta bestiek ez dogu lekuri euki. Halanda be, gure planak hobetuen agertzen ahalegiñdu gara.

2.- Zoritxarrez, abstentziñu altua espero da krisixa dala ta. Herri honetako pluralidadia agertzeko, gure aukixak mantendu bihar ditzugu.



MARI ASUN GARTZIA (Aralar)

Eguardixan emon eban botua Mariasun Gartzia udalartian, eta ordurako jende mordu zebillen mahai guztietan atzera eta aurrera.



1.- Hauteskundiatarako kanpainia eta gure kandidatua ondo ikusi ditzut bi aste honetan eta pentsatzen dot gure mezua be ondo aillegau jakola jendiari.

2.- Ez dot inkestetan siñesten. Bikin konformatzen naiz, baiña eskatzekotan herrialde bakotxeko bat etaratzia gustauko litxakit.



ALBERTO GARRO (Ezker Abertzalea)

Udalartian eguardixan emon eban botua Alberto Garro ezker abertzaleko ordezkariak eta orduan emon zeskun hauteskunde honen gaiñeko ikuspegixa.

EZKER ABERTZALEA

1.- Zailtasun haundixak izan ditzugu txartelak banatu ahal izateko, baiña halanda be jende morduak lagundu desku eta hori eskertzekua da.

2.- Edozeiñ emaitza ona izango da, gure helburua ez dalako kopuru bat lortzia, Euskal Herriko biztanliak demokrazian bizitzia baiño.



ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA
OSAKIDETZA - MUTUA - ASEGURUA ETA ABARREKIN KONTZERTATUA

CRF AMOSTEGI



* Fisioterapia

* Logopedia

* Kirol medikuntza

* Osteopatia

* Perineologia

* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 behea
20600 - EIBAR

e-maila: info@crf-amostegi.com
www.crf-amostegi.com

Tfnoa eta Faxa
943 20 34 46



	PSE-EE	EAJ-PNV	PP	Aralar	EB-IU	EA	UPyD	Baliogabeak
Amaña	757 (%55)	261 (%19)	158 (%11)	50 (%4)	39 (%3)	30 (%2)	3 (%0)	66 (%5)
Ipurua	664 (%35)	641 (%33)	128 (%7)	146 (%8)	71 (%4)	43 (%2)	15 (%1)	187 (%10)
Coliseoa	427 (%27)	544 (%34)	131 (%8)	149 (%9)	71 (%4)	85 (%5)	13 (%1)	151 (%10)
Gerontologikoa	231 (%40)	160 (%27)	66 (%11)	27 (%5)	22 (%4)	14 (%2)	4 (%1)	52 (%9)
San Andres	646 (%27)	856 (%36)	215 (%9)	167 (%7)	97 (%4)	114 (%5)	32 (%1)	239 (%10)
Udaletxea	765 (%27)	1.084 (%38)	217 (%8)	227 (%8)	83 (%3)	118 (%4)	23 (%1)	262 (%9)
Urki	718 (%44)	416 (%25)	159 (%10)	90 (%6)	61 (%4)	38 (%2)	9 (%1)	104 (%6)
Urkizu	824 (%31)	915 (%35)	263 (%10)	182 (%7)	94 (%4)	91 (%3)	19 (%1)	211 (%8)
Guztira	5.032 (%33)	4.887 (%33)	1.337 (%9)	1.038 (%7)	538 (%4)	533 (%4)	118 (%1)	1.272 (%9)

ARGITARATZAILEA:
"...eta kittol!" Euskara Elkartea.
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar.
Telefonoak: 943-206776 / 943-200918.
www.etakitto.com

BABESLEA:
Eibarko Udala.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

LAN TALDEA:
Maider Aranberri, Juan Andres Argoitia,
Isabel Arregi, Naiara Azpeitia,
Julian Fernandez, Silbia Hernandez,
Ainara Labado, Ainhoa Luz,
Koldo Mitxelena, Ainara Riveras.

KOLABORATZAILEA:
Eneko Astigarraga.

ARGAZKIAK:
Ekhi Belar, Leire Iturbe.

DISEINUA / MAKETAZIOA:
Jose Luis Gorostegi.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu, Belen Ulazia.

TIRADA:
6.000 ale.

BANAKETA:
Ihintza Fernandez, Anartz Mitxelena.

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. (Onati).

COPYRIGHT-A:
"...eta kittol!"

LEGE-GORDAILUA:
SS/430/92.

ISSN:
1132-1679.

"...eta kittol!"-k ez du bere gain
hartzten ale honetan adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.



ENEKO ASTIGARRAGA
(soziologoa)

Kolaborazioa

Ibarretxe irabazle, lehendakari nor?

Hauteskunde eguna izan genuen atzo EAEan eta irabazle garbia bozetan eta eserlekuetan Ibarretxeren EAJ izan da, baina datozen lau urteetan Ajuria Enea-ko Lehendakartzan zein egongo den jakiteko zerbait gehiago itxaron beharko dugu.

Adituen ustetan, perfil baxuko hauteskunde kanpaina izan dugu bi aste hauetan. Izan ere, aurtengo partaidetza 2001ean edo 2005ean baino urriagoa izan da: interes falta, jendearen nekea, batek daki, baina abstentzioa altua izan da: %34.

Kanpainako gertaera tristenak Lazkaoko lehergailua eta berriro Espainiako Gorteek onartutako Alderdien Legean oinarriturik hautesle zerrendak legez kanpo lagatzea izan dira. Beharbada alaiena, Ibarretxe eta Mr Spock-en arteko antzekotasuna aprobetxatuz, aratuste egunetan "Euskalprise-ren" agerpena Bilbon.

Emaitei dagokienez, goraka egin dute EAJ, PSE-EE eta Aralarrek, eta beheraka nabarmen PP-k, Eak eta EB-k. Lehen aldiz aurkeztu den UPyDk eserlekua lortu du Araban.

Orokorrean, gidoitik irten gabe joan da kanpaina, baina hauteskunde ostean panorama zeharo aldatu dela dirudi.

100.000 boto inguru lortu duen ezker abertzaleko D3M hauteskunde plataformaren zerrendak baliogabetzeak -EAEko laugarren indar politikoa- Eusko Legebiltzarraren balantza aldatu du.

EAJk aise irabazi ditu hauteskundeak, baina beste batzuetan ez bezala, gaur PSE-EEK eta PPK, Arabako UPyDren ordezkariaren laguntzaz, gehiengo osoa duen "gobernu konstituzionalista" lortzeko aukera dute. Hala ere, guberneurako elkarte ezegonkorregia dirudi.


Horrela, emaitzen aniztasunak Gobernua osatzeko aukerak zabaltzen ditu, eta Legebiltzarrak hainbeste alderdi ezberdinekin osatuta egoterakoan, seguruenez Gobernu negoziaketek luze joko dute. Bai EAJ-k eta bai PSE-EE-k fin ibili beharko dute beste alderdiekin berba egin eta akordioetara ailegatu ahal izateko. Hurrengo egunetan ikusiko dugu.

Eibarren, 2007an eta 2008an bezala, PSE-EE

izan da nagusi berriro, baina alderdi nagusien artean gauzak parekatuta joan dira. 2005eko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan EAJ-EA koalizioak erraz irabazi zuen, baina gaur EAJ eta EAren botoen batuketak alde txikia ateratzen dio PSE-ri.

Azken lau urteetan Jaurlaritzan egon diren Eusko Alkartasunak, Ezker Batuak eta PP-k galdu dituzte boto gehien. Kasu batzuetan, aurreko hauteskundeetan lortutako botoen erdira jaitsiz. Era berean, legez kanpo lagatutako ezker abertzaleak eskuratutako boto nuloak jaitsi egin dira, %30 inguru.

Kanpainan gertatutako Ibarretxe-Lopez polarizazioak eta baliogabetutako botoen eraginak, EAJ eta PSE-ren mesederako izan direla pentsatu daiteke. Zaila da jakitea boto dantzaren gorabeherak nondik etorri diren: EAK galduetako botoak EAJ eta Aralarrean joan dira? PPK galduetakoak PSE-EE eta UPyDra joan dira? EBkoak PSE eta Aralarrean? Auskalo, seguruenez hurrengo hauteskundeek argituko dizkigute gaur sumatutako joerak.



eibartarren
irribarrea pizten



Bista Eder
CLINICA DENTAL • HORTZ KLINIKA

Inplantologia eta Estetika

Bista Eder Hartz Klinika

bista eder, 19 - behea

943 70 00 82 / 943 20 84 75

bide



Ariktxaneko zubia, 1 - behea (EIBAR) Tel. 943 200 501

— GIDA ETA ARMA BAIMENAK
— ZIURTAGIRI MEDIKUAK

PSE-EE (MIGUEL DE LOS TOYOS)

"Lehenengoz lortu dugu Legebiltzarreko hauteskundeetan Eibarren irabaztea. 2005ekoekin alderatuta, partehartzea jaitsita ere, gure boto kopuruak gora egin du: 700 bat gehiago lortu dugu, baina portzentualki igoera 10 puntukoa da. EAJ eta EA koalizioan joan ziren eta zaila da datuak alderatzea, baina oraingo batuketak ia 1.000 boto gutxiago ematen die. Botuen polarizazioa eman da; EAtik EAJra boto erabilgarriaren trasbasea egon dela dirudi".



EAJ-PNV (IÑAKI ZULUAGA)

"Euskadin hauteskundeak irabazi ditugu, jendearen konfidantza lortuta. Bestetik, guretzat txarra da PSE, PP eta UPyD-k gehiengo absolutua izatea, baina hori hurrengo asteetan ikusiko da, egiten dituzten negoziazioen arabera. Eibarko emaitzei ikusita oso pozik gaude. Morala berreskuratu dugu azken lau urteetan gure alderdiaren inguruan giro nahasia izan ostean. Sendotu egin gara alderdi bezala eta emaitzetan ikusten da hori".



PP (CARMEN LARRAÑAGA)

"Boto gutxiago eskuratu ditugu eta jaitsi egin gara. Kanpaina polita izan da, klasea egon dela esango nuke. Hala ere, boto erabilgarriak izan du eragina gure kasuan. Izan ere, kanpaina polarizatu egin da sozialisten eta jeltzaleen arteko lehian. Gure kasuan, gure botoak sozialistengana pasatu dira. EAEan lortutako 13 eserlekuetan pozik gaude, nahiz eta gehiago lortuko genituela pentsatu. Eskerrak eman nahi dizkiet botoa eman diguten guztiei".



EA (ALBERTO UNAMUNZAGA)

"Hasteko, eskerrak eman behar dizkiegu bozka eman diguten herritar guztiei, gure ahotsak Legebiltzarrean entzuten segituko du eta. Emaitzei dagokionez, uste baino okerragoak izan dira aurtengoak, bizi izan dugun kanpaina polarizatuaren ondorio. Hala ere, aurrera egin behar dugu gure proiektuak ateratzen jarraitzeko eta hurrengo hauteskundeetan emaitza hobek lortzeko".



EB-IU (JUAN SANCHEZ-VALLEJO)

"Euskadiko gizartea aldaketa eskatzen ari dela uste dut. EAJ igo da eta PSE-EE gehiago. Horrekin batera, gobernu alderdi estatalistek osatzeko aukera ere badago. Interesgarriena orain dator. EBk porrot egin du, batez ere Madrazoren aulkia galduta. Azken urteetan gure alderdiak gora-behera asko izan ditu eta EAJri segidismoa egin dio. EBko hautesleria ez da nazionalista eta, beraz, bere eragina izan du horrek emaitzetan. Galdu egin dugu".



ARALAR (SERGIO SAN JOSE)

"Alde batetik, Eibarko datuak aipatzerakoan, esan behar dugu oso datu positiboak direla. Eibartarron konfidantza lortu dugu eta oso pozik gaude lortutako botoekin. Euskadiko datuei dagokionez ere, gauza bera esan behar dugu. Datuek argi erakusten dute ezker abertzale politikoari indar handia eman diola jendeak, konfidantza jarri dute Aralarrengan, eta oso pozik gaude horregatik".



EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTETSI BANAKETA

	orain	lehen
EAJ-PNV	30	22
PSE-EE	24	18
PP	13	15
Aralar	4	1
EA	2	7
EB-IU	1	3
UPyD	1	-
EHA	-	9

EZKER ABERTZALEA (MARIANO LUKE)



"Emaitzen irakurketa positiboa egiten dugu, oztopoak-oztopo jendeak ezker abertzalearen proiektu politikoarekin bat egin duelako eta, aurrera begira, independentzia eta sozialismoaren bidean lan egiten jarraituko dugu, eszenatoki demokratiko bat lortu arte. Eszenatoki antidemokratiko batean jarraitzen dugu, kanpaina hasi aurretik ilegalizazioa martxan zegoen eta jazarpen poliziala inoiz baino gogorragoa izan da, herrian sei lagun identifikatu dituzte".


EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTETSI BANAKETA

GIPUZKOA	BIZKAIA	ARABA
EAJ-PNV10	EAJ-PNV12	EAJ-PNV8
PSE-EE8	PSE-EE8	PSE-EE8
PP3	PP4	PP6
ARALAR2	ARALAR1	ARALAR1
EA1		EA1
EB1		UPyD1

GALIZIAKO PARLAMENTUA


	orain	lehen
PP	39	37
PSG	24	25
BNG	12	13

Bi eibartar izango dira hurrengo Eusko Jaurlaritzako parlamentuan: **INAKI ARRIOLA** eta **MIREN GALLASTEGI** sozialistak.



denolan, s.l.
ENPRESA AHOLKULARITZA

Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80
Faxa: 943 20 18 41
Tfnoa: 943 74 18 00 / Faxa: 943 74 17 60
E-maila: denolan@denolan.es
P. M. Urruzuno, 31 - behea (ELGOIBAR)



Siurlan
ASEGURU ARTEKARITZA

Bidebarrieta 38-40 (EIBAR) • Donibane Plaza, 4 (ZARAUTZ)
Tfnoa: 943 20 16 80 • Tfnoa: 943 89 55 05
Faxa: 943 20 18 41 • Faxa: 943 89 49 20



Errebal, 6 - behea

INMOBILIARIA

IBAI ONDO

Tel / Faxa: 943 20 12 13